



COVID-19AREN AURREKO PREBENTZIO GOMENDIOAK SASOIKAKO LANGILEAK KONTRATATUKO DITUZTEN NEKAZARITZAKO USTIATEGIETARAKO

(2020-11-03)

COVID-19ak eragindako osasun pandemiak nekazaritzan aritzen direnen lanaren garrantzia nabarmendu du. Funtsezko lan jarduera bat izan da alarma-egoeran eta, beste jarduera batzuekin batera, gure gizarteak eskatzen zituen lehen mailako elikagaiez hornitzea ahalbidetu du behar bezalako denboran eta kantitatean, betiere kalitate baldintzei eutsita.

Hala ere, oraindik badago SARS-CoV-2 koronabirus berriaren kutsatze eta transmisio arriskua eta, horrenbestez, nekazaritzako lanak eta prebentzio neurri egokiak bateragarri egin behar dira. Arreta berezia eskatzen dute uzta biltzeko aldiek (oraingoa, kasu). Izan ere, horietarako sasoikako langileak kontratatu behar dira, batzuetan Nafarroatik kanpotik datozenak eta COVID-19aren agerraldi berrietan kalteberagoak bihurtzen dituzten gizarte eta lan baldintzak dituztenak, Europako Batzordeak adierazi bezala¹. Badaude arrisku egoera batzuk, arduraz jorratu behar ditugunak² eskura ditugun neurri guztiak aplikatuta, hala nola kolektibo horren taldekako joan-etorrietan –estatuko nahiz atzerriko eskualde geografikoen artean– egon daitezkeen pertsonen arteko harremanak, lanaren beraren zenbait ezaugarri, eta bizileku erabiltzen dituzten tokiak, pertsonen arteko segurtasun-tartea betetzeko aukerak mugatzen dituzten eremu komunak dituztenak.

Horrela, agiri honetan, zenbait gomendio eta neurri bildu dira, bermatzeko COVID-19aren aurrean babesten dela sasoikako langileen osasuna. Osasun Ministerioaren gidan argitaratu direnen osagarriak dira³.



Enpresa bakoitzak, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren aholkuei jarraikiz, bere jarduerarako behar dituen neurri berariazkoak zehaztu behar ditu, langileei edo haien ordezkariak kontsultatuz eta haiek partaide direla.

Aholku horiek jasotzeko, eta kanpoko edo enpresako Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzurik ez badu, harremanetan jartzen ahal da Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuarekin (NOPLOI).

¹ EUROPAKO BATZORDEAREN 2020/C235 I/01 KOMUNIKAZIOA. [“Europar Batasuneko sasoikako langileei buruzko zuzentarauak, COVID-19aren pandemiaren testuinguruari lotutakoak”](#). Brusela. Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, 2020-7-17koa.

² EUROPAKO BATZORDEAREN COM (2020) 318 KOMUNIKAZIOA - amaiera. [“Europar Batasunaren epe laburrerako osasun arloko prestaketa, COVID-19aren agerraldien aurrekoa”](#). Brusela. Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, 2020-7-15koa.

³ MINISTERIO DE SANIDAD. [“Guía para la prevención y control de la COVID-19 en las explotaciones agrícolas que vayan a contratar temporeros”](#). Madrid, 3.08.2020.



Gai hauek lantzen dira:

- Kontingentzia Plana.
- Gaixorik dauden langileak, langile bereziki sentiberak eta kontaktu estuak.
- Pertsonen arteko segurtasun tartea.
- Joan-etorriak.
- Lantokira sartzea eta ateratzea.
- Lanaren antolaketa.
- Lantokiak, tresnak eta laneko ekipamenduak. Higieneko eta garbiketako neurriak.
- Aldagelak, atsedeen hartzeko gelak, komunak eta bizilekuak.
- Langileei informazioa eta prestakuntza ematea.
- Norbera babesteko ekipamenduak.
- Beste informaziobide batzuk.
- Dauden baliabideak.
- Aholkuak eta kontsultak.

KONTINGENTZIA PLANA

- Enpresei dagokie langileek jardueretako bakoitzean izan dezaketen SARS-CoV-2aren aurreko arriskua ebaluatzea eta horri buruz **Laneko Arriskuen Prebentzioarako bere Zerbitzuak** (aurrerantzean, LAPZ) egiten dituen gomendioak aplikatzea, estatuko zein Nafarroako Foru Komunitateko osasun agintaritzek ezarritako jarraibideak eta gomendioak aintzat hartuta.
- Horrela, bere **LAPZren** aholkuekin, enpresa bakoitzak bere jarduerarako beharrezkoak diren neurri espezifikoak definituko ditu, **eta langileei, haien ordezkariari edo ustiategiaren ezaugarrien arabera interesgarria izan daitekeen beste norbaiti kontsulta eginen die, eta haien partaidetza izanen du** neurri horiek hartzeko. Neurri horiek lantokiko berezko lanen, plantillaren ezaugarrien eta lantaldeen, laboreen eta beste alderdi batzuen arabera hartu beharko dira (hala nola klima, lurra eta abar). Kontuan hartu beharko dira antolaketari, babes kolektiboari edo, halakorik ezean, norbanakoari dagozkion neurriak, bereziki sentiberak diren pertsonen presentzia, ⁴eta enpresan gertatutako kasu positiboen eta kontaktu estuen azterketa eta erabilera⁵.
- Aurreko bi puntuetan ezarritako jarduketak **Kontingentzia Plana** izeneko dokumentu batean jasoko dira.
- Bestalde, **erantzukizunpeko adierazpenean** jakinarazi beharreko datuez gain (abuztuaren 11ko 604/2020 Ebazpena, dagoeneko aipatua), enpresak azken hogeita hamar egunetan Nafarroatik kanpo bidaiatu duten langileen datuak erregistratuko ditu (izen-abizenak, NANA eta bidaiaren helmuga).

⁴ Osasun Ministerioak honako egoera edo patologia hauek dituzten pertsonak jo ditu COVID-19rako talde sentiberatzat: eritasun kardiobaskularrak (hipertentsioa barne), biriketako eritasun kronikoa, diabetesa, giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa, immunodepresioa, minbizia tratamendu aktiboko fasean, gibeledoko eritasun kroniko larria, obesitate morbidoa (IMC>40), haurdunaldia eta 60 urtetik goitikoa izatea.

Halaber, ikusi Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko [31/1995 Legearen 25. artikulua](#).

⁵ LAPZrik izan ezean edo beste kontsulta batzuk egin nahi izanez gero, aholkua eskatzen ahalko zaio NOPLOIri.



- Gomendagarria da, halaber, kontratatutako langile guztien zerrenda, harremanetarako telefono zenbakiak, zer lantaldetakoak diren eta haien ostatu unitatea jasotzen dituen erregistroa izatea.

GAIXORIK DAUDEN LANGILEAK, LANGILE BEREZIKI SENTIBERAK ETA KONTAKTU ESTUAK

- Enpresak langileei eman behar dien informazioaren artean, COVID-19arekin bateragarriak diren **sintomen** zerrenda emanen die (l. eranskina), eta argi adieraziko da sintoma horietakoren bat izanez gero ez dutela **lantokira** joan behar.
- Lanalditik kanpo horrelako sintomaren bat agertzen bada, langileak berehala deituko du aldi baterako bizi den herriko **osasun zentrora** edo **948 290 290** telefonora, eta ematen zaizkion jarraibideak beteko ditu. Gainera, horren berri emanen dio enpresari.
- Sintometako bat lanpostuan egonik agertzen bada, langileak horren berri emanen dio **arduradunari edo enpresak izendatutako pertsonari**⁶, sintomaduna bakartuko da (maskara kirurgiko bat emanen dio) eta osasun zentrora igorriko da.
- Sukarra COVID-19a diagnostikatzeko eta lanaldiaren hasieran langileei gorputz-tenperatura neurtzeko sintometako bat denez, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (aurrerantzean, NOPLOI) ondorioztatu du ez dagoela praktika horren eraginkortasuna bermatzen duen ebidentzia zientifikorik⁷.
- Horrez gain, abuztuaren 11ko 604/2020 Ebazpenak ezartzen du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak **PCR probak** eginen dizkiela *“aldi baterako nekazaritzako langileei, laneko kontratu bat sinatu badute Nafarroako enpresa batekin eta Nafarroako udalerrietan erroldatuta ez badaude edo, Nafarroako udalerrietan erroldatuta egonda ere, azken bi hilabeteetan beste autonomia erkidego edo herrialde batzuetan nekazaritzako lanetan parte hartu badute”*.
- Gainera, enpresak baldin badaki COVID-19ko **kasu positibo** bat dagoela bere langileen artean, bere LAPZko osasuna zaintzeko unitateari adieraziko dio, azterketa egiteko eta berehala atzemateko **kontaktu estu guztiak**⁸.
- **Kontaktu estuak** identifikatzen badira lantokian berean, LAPZk NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuari jakinaraziko dio helbide elektronikoen bidez: contactosestrechoslaborales@navarra.es.
- Langile batek baldin badaki kasu positibo batekin **kontaktu estua** izan duela, enpresari jakinarazi beharko dio.

⁶ Ikusi aurrerago, “Langileei informazioa eta prestakuntza ematea” atalean, hain zuzen.

⁷ Informazio gehiago gure webguneko dokumentu honetan: [COVID-19a. Langileen tenperatura kontrolatzea lanaldia hasterakoan](#)

⁸ Hemen zehazten da zer den kontaktu estua izatea: Jarduketa prozedura, laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuek jarraitu beharrekoa SARS-CoV-2aren aurrean (unean unean indarrean dagoen prozedurari jarraitu behar zaio).





- COVID-19aren diagnostikoa egiaztatua duten pertsonen **bakartuta** egon beharko dute beren etxeetan, **aldi baterako ezintasunagatik** bajaran. Pertsona horiek osasun baldintza egokietan bakartzeko baldintza objektiborik ez badute, Osasun Departamentuak horretarako prestatu edo gaitzen dituen ostaturako establezimenduetan bakartuko dira.
- Bakartzeak irauten duen bitartean, lan kontratua duten pertsona guztiek bermaturik dituzte osasun laguntza eta dagokion prestazio ekonomikoa.
- LAPZko osasuna zaintzeko unitateak arrisku horrekiko **bereziki sentiberak diren langileak** identifikatu beharko ditu⁵, eta baloratu langile horiek lanean jarrai dezaketen, baldintza beretan, haien lanpostua egokitu ondoan, arriskurik gabeko lanpostu batera aldatu ondoan edo beste neurri batzuk aplikatu ondoan. Balorazio horren emaitzetan, hala badagokio, argi deskribatu beharko da zer egokitzapen-neurri espezifiko proposatzen diren bereziki sentibera den langilea babesteko.
- Funtsezkoa da enpresaburuak eguneratua izatea langileen osasunaren zainketaren kontratazioa. Kontu horri buruz zalantzarik izanez gero, harremanetan jartzen ahalko da NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuko Laneko Osasuna Zaintzeko Atalarekin, mezu bat igorri contactosestreichoslaborales@navarra.es helbide elektronikora edo, bestela, 848 423 747 telefonora deituz.

PERTSONEN ARTEKO SEGURTASUN TARTEA

- Aipatutako 21/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera, langileen artean 1,5 metroko gutxieneko segurtasun tarteak gordetzen dela bermatzeko behar diren neurri guztiak hartu behar dira lantokietan: laneko postuen egokitzapena, ahalik eta lantalde txikienak osatzea, txanden antolaketa, espazio komunitario gehieneko okupazioaren kontrola, etab.
- Hala ere, ahal den guztietan gutxieneko distantzia hori handitzea gomendatzen da.
- Pertsonen arteko 1,5 metroko tarte fisiko hori bermatu ezin denean, arnas babeserako NBEa edo, hala badagokio, maskara kirurgikoa erabili beharko da.

JOAN-ETORRIAK

- Enpresak zainduko du sasoikako langileak Nafarroara bidaiatzean errespetatuko direla COVID-19ari aurre egiteko prebentzio neurriak, bereziki bidaiarien artean egon behar den tarte eta maskaren erabilera.
- Lantokirako joan-etorriak ahal dela bakarka egingen dira edo, ahal den guztietan, pertsonen arteko 1,5 metroko gutxieneko tarte ongien bermatzen duten mugikortasunerako aukerak erabiliz.
- Bidaiarien garraio publiko eta pribatu osagarriei dagokienez, bederatzi tokira arteko ibilgailuetan (gidaria barne), ibilgailuko bidaiari guztiek maskara jantzi beharko dute, etxe berean bizi ez badira. Halaber, saiaturiko da gidaria beti pertsona bera izaten, eta ibilgailuko ateen eskulekuak, heldulekuak, sakagailuak, bolanteak eta aginteak maizago garbitu eta desinfektatuko dira.



LANTOKIRA SARTZEA ETA ATERATZEA

- Langileak lantokietara (nekazaritzako ustiategiak, biltegiak...) modu mailakatuan sartu eta ateratzea antolatuko da, segurtasun tartea gordetzearren.
- Gomendatzen da sarbide bat egokitzea lantokira sartzeko, eta beste bat ateratzeko, eta behar diren seinaleak jartzea, pertsonak ez daitezen gurutzatu.
- Hatz-marka bidez fitxatzeko sistemak saihestuko dira; horiek mantenduz gero, disoluzio hidroalkoholiko bat jarriko da langileen eskura, fitxatu aurretik eta ondoren erabiltzeko.
- Barneko atek irekirik utziko dira, ahal bada.

LANAREN ANTOLAKETA

- Funtsezkoa da sasoikako langileak ahalik eta familia nukleo edo talde txikienetan bereiztea eta taldeen artean edozein kontaktu saihestea, bai barruko espazioetan eta finketan (lan egitean, atsedean hartzean, jatean, lantokira sartu eta irtetean eta abar), bai bizilekuetan.
- Lanpostuetan, pertsonen arteko 1,5 m-ko segurtasun tartea bermatuko da, edo, bestela, beste babes aukera egoki batzuk aztertuko dira, hala nola ekoizpen-prozesuak aldatzea, pertsonak banantzeko neurri fisikoak ezartzea... Nahitaezkoa da maskara erabiltzea, betiere pertsonen arteko derrigorrezko distantzia fisikoa gordetzen ez bada.
- Kanpoko langileak lantokira sartzera mugatuko da, jarduera garatzeko funtsezkoak ez badira.
- Segurtasun neurri berak hartuko dira lantokian ari diren langile guztientzat, zein den ere haien enpresa.

LANTOKIAK, TRESNAK ETA LANEKO EKIPAMENDUAK HIGIENEO ETA GARBIKETAKO NEURRIAK

- Zirkulatzeko bideak, instalazio finkoetara sartzeko bideak (biltegiak, jantokiak...) behar bezala seinaleztatuko dira, jendea ez gurutzatzeko.
- Birusa airetik gutxiago transmiti dadin, **aireztapen egokia** bermatuko da lantoki itxietan, eremu komunak barne.

Aldizkako aireztapena egingen da, gutxienez egunero eta ahalik eta denbora luzeenean.

Ahal dela, honako hauek gomendatzen dira:

- Barruko airea gehiago berritu kanpoko aire garbia sartuta.
- Airearen birzirkulazioa saihestu, non eta ez dagoen airea iragazteko eta/edo desinfektatzeko sistema bat, eraginkortasuna egiaztatua duena.
- Laneko zenbait tokitan banakako klimatizazio ekipamenduak daude, eta horietan bermatu behar da barruko airea berritzen dela leihok irekiz edo, leihorik ez badago, atek.
- Aireztapen sistemak aldian-aldian garbitu behar dira, behar bezala funtzionatzen dutela eta arriskua kontrolatzeko neurri gisa eraginkorrak direla bermatzeko.



- Beharrezkoa da **kutsatuta egon daitezkeen instalazio, eremu komun eta gainazal guztien garbiketa eta desinfekzioa** indartzea, arreta jarriz maiz ukitzen diren gainazalaz (eskulekuak, eskailerak, eskubandak...) eta langileen txandak eta txanda-aldaketak dituzten eremuetan.
- **Tresnak, saskiak eta, ahal dela, laneko ekipamenduak** (landatzeko makinak, traktoreak, uzta biltzeko makinak, etab.) **banaka erabiltzea** gomendatzen da, baita langile bakoitzaren saskiei eta tresnei identifikazio bat gehitzea eta batzuk besteekin nahastea saihestea ere. Horrelakorik ezean, plantillaren eskura jarriko da desinfektatzailea, lanabes eta bestelako tresnetan erabili aurretik eta ondoren aplikatu ahal izateko. Laneko ekipamenduei dagokienez, arreta berezia jarriko da palankak, giltzaren kontaktuak, bolanteak, eserlekuen posizio-doikuntzak, beso-euskarriak, segurtasun-uhalak eta eskuekin kontaktuan egoteko beste gainazal batzuk garbitu eta desinfektatzeko.
- Gainazalak garbitzeko, desinfektatzaileak erabiliko dira, hala nola **lixibazko diluzioak (1:50)**, prestatu berriak, **etanola**, gutxienez %70ean, edo **eragin birizida duten desinfektatzaileak**, merkatuan eskura daudenak eta Osasun Ministerioak [baimendu](#) eta erregistratu dituenak. Desinfektatzailea erositakoa bada, fabrikatzailearen arauak beteko dira (etiketa, jarraibideak eta segurtasun datuen fitxa).
- **Langileen uniformeak eta laneko jantziak** aldi berean behin garbitu eta desinfektatuko dira.
- **Higiene pertsonaleko** neurriak indartzeko, eremu komunetan eta lanpostuetatik hurbil, **ura eta xaboa eskura** jarriko dira eskuak garbitzeko, baita **gel hidroalkoholikoak**, erabili eta botatzeko paperezko eskuoihalak eta paperontzi estalkidun eta pedaldunak edo bestelako ontziak ere. Gomendatzen da langile bakoitzak disoluzio hidroalkoholikoarekin betetzeko ontzi dosifikatzaile txiki bat izatea. Horrelako soluzioa eskuak garbi daudela soilik erabiliko da, bestela ez baita eraginkorra izanen.

ALDAGELAK, ATSEDEN HARTZEKO GELAK, KOMUNAK ETA BIZILEKUAK

Areto komunak

- Segurtasun tarteak bermatzeko behar diren neurriak aplikatuko dira:
 - Horien okupazioa mugatu, sartzeko txandak ezarrita.
 - Armairuak eta banku jarraituak, eta mahaia eta aulkiak non jarri eta nola erabili antolatu, langileen arteko distantziarik handiena bermatzeko, bai bi hanketan, bai eserita.
- Eremu amankomunetan, lanpostuetan bezala, maskara eraman behar da, ezin bada segurtasun-tartea gorde. Hala ere, aireztapen nahikoa ez duten lekuetan, gomendagarria da maskara ahalik eta denbora gehienez eramatea, baita segurtasun-tartea bermatzen denean ere.
- Komunetan eskura jarri xaboa, eskuak lehertzeko papera eta, ahal bada, paperontzi estalkidun eta pedaldunak; infografiak ere ipini, langileei orotarazteko beharrezkoa dela eskuak ongi garbitzea atsedean hartu aurretik eta ondoan, jan eta edan aurretik eta ondoan, komunera joan aurretik eta ondoan, eta lantokia utzi aurretik.
- Beharrezkoa da ongi garbitzea eta desinfektatzea eremu komunak (esate baterako, aldagelak) eta, bereziki, armairuak eta bankuak, dutxak, komunak eta atsedenekuak. Mahaia, aulkiak eta bankuak garbitu atsedeen-talde batek gela erabili ondoan.





- Maiz berrikusiko da komunetako eta dutxetako tresna sanitarioak, txorrotak eta ateetako heldulekuak garbi daudela eta ongi dabiltzala.
- Instalazio horiek aldizka aireztatuko dira.

Bizilekuak

- Osasun Ministerioak adierazitakoaren arabera, langileentzako aldi baterako bizilekuek bete behar dute [Lantokietako segurtasun eta osasun xedapen gutxienekoak ematen dituen 486/1997 Dekretuaren V. eranskinean](#) xedatutakoa. Gutxienez ur bero eta hotzeko dutxak, sare elektrikorako konexioa eta hondakin uren saneamendua izan beharko dituzte.
- Enpresaburua kontratatutako pertsoneri ostatu emateko arduraduna denean:
 - Bizileku horietan COVID-19aren aurreko prebentzio eta babes baliabide egokiak uneoro eskura daudela ziurtatuko da. Higiene eta garbiketarako behar diren material eta instalazioak bermatuko ditu, bai etxebizitzarenak berarenak, bere gela, altzari eta etxeko tresnenak, bai langileenak, areto komunetarako aurreko atalean adierazitakoaren arabera.
 - Etxebizitzetako eremu guztiak garbitu eta desinfektatzeko plana prestatu beharko du, garbiketa eta desinfekzio lan horiek egiteko ardura duten pertsonak identifikatzeko.
 - Elkarrekin bizi diren kideen talde bakoitzarentzat bereizitako tresneria eta bestelako tresnak jarriko ditu, eta etxebizitza bakoitzeko pertsonen artean erabilera pertsonaleko gauzak partekatu behar izatea saihestuko du.
 - Egoiliarrekin loturarik ez duten bisita guztiak murriztuko dira, behar-beharrezkoak ez badira.
 - Garbigailuak jarriko dira, eta arropa 60 °C-ko edo gehiagoko tenperaturan garbitzea gomendatzen da.
 - Etxebizitzak gutxienez egunean behin eta ahalik eta denbora luzeenean aireztatzen direla bermatuko da.
 - Ahal den guztietan, lantaldeetako kideak **lan eta bizikidetzat talde egonkorretan** banatuko ditu, edo etxebizitzak eta haien eremu komunak lantaldeen arabera bereizitako eremu edo sektoreetan banatuko ditu. Aurrekoa egiterik ez badago, eremu komunak erabiltzeko prozedurak ezarriko dira, ordutegiak (txandak) eta erabilera bakoitzaren ondoren garbitu eta desinfektatzeko prozedurak barne.
- Ahal bada, bakartze eremu bat jarriko da kasu positiboentzat edo kontaktu estuentzat.

LANGILEEI INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA EMATEA

- Kontratatutako sasoikako langile guztiak informazioa jasoko dute SARS-CoV-2 kutsatu eta transmititzeko arriskuari eta enpresak ezarritako babes eta prebentzio neurriei buruz.

Horretarako, **aurrez aurreko informazio saio bat** prestatuko da, **lana hasi aurretik**, eta bertan, gutxienez, gai hauek jorratuko dira, eta horien berri ere idatziz emanen da:

- COVID-19 gaixotasunarekin **bateragarriak diren sintomen** zerrenda eta, sintoma horietakoren bat izanez gero, LANERA EZ JOATEKO agindua ematea, enpresari abisatzea eta aldi baterako bizi den herriko osasun zentrora edo 948 290 290 telefono zenbakira deitzea. (I. eranskina)



- Eginen zaien **PCR diagnosi proba** zertan datzan eta emaitza positiboa bada zer egin behar den: bakartzea, osasun laguntzaren eta prestazio ekonomikoaren bermea, kontaktu estuen bilaketa, etab. Sor daitezkeen zalantzak argituko dira.
- Enpresak ezarritako **prebentzio neurriak** eta langileen betebeharrak.
- NBE, maskara kirurgikoak eta bestelako babes material eta baliabideak **behar bezala erabiltzea**.
- **Babes neurriak eskatzeko prozedura** (maskarak, garbitzeko materiala...), eskura dituenak ordezkatu behar direnean edo ez daudenean.
- **Enpresan** berariazko eginkizunetarako **izendatutako pertsonak**.
- Behar diren **telefono zenbakiak**:
 - * Bizi den herriko osasun etxearena.
 - * Osasun Kontseiluaren Zerbitzuarena (osasun etxeko arreta ordutegitik kanpo erabili beharrekoa): 948 290 290.
 - * Enpresako erreferentziako pertsonarena.
 - * Gurutze Gorriarena eta Secretariado Gitano fundazioarena, jatorrizko hizkuntzan laguntza eta bitartekaritza eskatzeko, Nafarroako administrazio publikoekin egin beharreko jarduketei dagokienez (II. eranskina).
- Saio hori informazio eguneratuarekin errepikatuko da, beharrezkoa bada.
- Enpresako pertsonak beren ohituretan sartu behar dituzten neurriei buruzko **ikusizko informazioa** emanen da, testu idatziarekin edo gabe, infografiak eta beste material lagungarri batzuk erabiliz (zer egin behar den eta zer ez, seinaleak...). Gomendagarria da material hori ageriko lekuetan eta langileek maiz bisitatzen dituztenetan jartzea (komunak, jantokiak, lantokirako sarrera eta irteera...).
- Informazioak eta komunikazioak **sasoikako langileen jatorrizko hizkuntzan** egin beharko dira, mezuak ulertzen direla bermatzeko. Horri dagokionez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak nekazaritzako ustategietako arduradunen eta sasoikako langileen eskura jartzen du **Kulturen arteko Bitartekotza eta Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua**, Gurutze Gorriak eta Secretariado Gitano fundazioak kudeatua. Horren bidez, laguntza eskatzen ahalko da langileei hainbat hizkuntzatan (ingeleza, frantsesa, arabiera, bulgariera, portugesa eta errumaniera) hitzaldiak edo prestakuntza emateko eta osasun etxearekin edo administrazio publikoko beste zentro edo zerbitzu batzuekin komunikatzeko (II. eranskina).
- Halaber, **prestakuntza** nahikoa eta egokia, teorikoa eta praktikoa bermatuko da, langile guztientzako neurri jakin batzuei dagokienez (NBEak eta maskara kirurgikoak behar bezala erabiltzea...), eta garbiketaz, desinfekzioaz eta hondakinen kudeaketaz arduratzen diren langileentzako lan-neurri eta -prozedura espezifikoek dagokienez (jarraibide argiak, erabili beharreko NBEak, produktuen eta diluzioen erabilera, etab.).
- **Enpresan erreferentziako pertsona bat izendatzea** gomendatzen da, langileek adieraz diezaioten COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituztela; kasu positiboren bateko kontaktu estuak direla uste dutela; jarduteko jarraibideei, betebeharrei eta abarri buruzko zalantzak dituztela; eta laguntza eskatzea osasun etxearekin komunikatzeko edo Kulturen arteko Bitartekotza Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko.



NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK (NBE)

- Neurri kolektiboak eman behar zaie lehenetasuna, norbera babesteko neurrien aldean. Langileen artean segurtasun tarteak utzi behar dira, eskuak higienizatu behar dira eta gainazalak garbitu eta desinfektatu behar dira.
- Nahitaezkoa izanzen da arnasketako ekipamenduak erabiltzea, arrisku-mailara egokitutakoak, segurtasun tarteak une oro mantendu ezin diren zereginetan eta babes kolektiboak posible edo nahikoak ez direnean.
 - Agente biologikoetarako gomendatzen dira norbera babesteko arnasketako ekipamendu hauek: FFP2 maskara autoirazleak, edo aurpegirako egokitzailea eta P2 partikulen aurreko iragazkia dituzten maskarak.
 - Arrisku-mailaren balorazioari dagokionez, kontuan hartu behar da koronabirusaren epidemia gutxitze-fasean dagoela jo daitekeela, esposizio-probabilitatearen ikuspegitik, Rt indizea 1etik beherakoa denean. Hala ere, agiri hau gaurkotu zen egunean aipatu Rt indizea 1etik gorakoa izan zen, eta, horrenbestez, ondorioztatzea da kasuak modu esponentzian handituko direla eta, beraz, kutsatzeko arriskua handiagoa izanzen dela.
 - Bestalde, ahalegin fisikoak behar duten lanetan arnasketako NBEak erabiltzeak deserosotasun-arriskua ekar diezake langileei. Egoera hori larriagoa izan daiteke baldin eta jarduera fisiko bizi hori egiten den lantokietan estres termikorako arriskua badago kondizio termohigrometrikoen ondorioz (tenperatura eta hezetasun erlatibo handiak).
 - Maskara erabiliko da ezinbestekoa den denbora-tartean, ez luzeagoan, batez ere norbera babesteko arnasketako ekipamenduen kasuan, haietarako gomendatzen baita 4 ordu baino gehiago ez erabiltzea lanaldi edo lan-txanda bakoitzeko. Horregatik, beste neurri batzuk hartuko dira, pertsonen arteko segurtasun tarteari eutsi ahal izateko gainerako denboran. Maskara kirurgikoa erabiltzea erabakitzen bada erosotasunagatik eta higieagatik, maskara berri bat erabiltzeko gomendatzen da 4 orduz behin, edo erabiltzean busti, hondatu edo zikintzen bada. Kontu honetan eta beste batzuetan, maskara erabiliko da fabrikatzaileak emandako informazioari jarraituz.
- Enpresak NBE nahiko eta egokiak eman behar dizkie sasoikako langileei. Baldin eta ezinezkoa bada UNE-EN arauak jarraituz fabrikatutako maskaraz hornitzea, norbera babesteko arnasketako ekipamendu baliokide batzuk erabili daitezke salbuespenez; esaterako, KN95 edo N95 motako maskarak edo bestelako batzuk (2020ko irailaren 28ko Ebazpena, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiak emana, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren testuinguruan erabili beharreko babes-ekipamenduei buruzkoa), baldin eta baimena badute, merkaturatutako eskumenak dituen agintaritzak batek aldi baterako emana, edo Europako erakunde notifikatu batek emandako Europar Batasuneko ziurtagiria badute.
- Garbitzeko edo hondakinak kudeatzeko lanak egiten dituzten langileek erabili beharko dituzte mikroorganismoen aurrean babesten duten eskularruak, maskara eta laneko arropa. Garbiketa bakoitzaren ondoren, material horiek era seguruan botako dira, eta gero eskuak garbitu beharko dira. Langile horiei jarraibideak emanen zaizkie beren lana era egokian egin dezaten (produktuak, diluzioak, prozedurak, NBEak kendu ondoren eskuak garbitzea...).
- Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzen dituzten langileek jakin beharko dute ekipamendu horiek zuzen nola erabiltzen diren, fabrikatzaileak emandako informazioa izan den prestakuntza teoriko-praktikoaren bidez. Norbera babesteko ekipamenduak kutsadura iturri izan daitezke oker erabiliz gero, jartzen direnetik kendu arte.





BESTE INFORMAZIOBIDE BATZUK

- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. [Koronabirusaren gaineko webgunea](#)
- Nafarroako Gobernua. [Koronabirusaren gaineko webgune ofiziala](#)
- Osasun Ministerioa. [COVID-19 koronabirus berriak eragindako gaixotasuna](#)
- Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionala. [COVID-19 eremua](#)

DAUDEN BALIABIDEAK

[Sasoikako langileentzako](#) infografiak eta berriazko beste dokumentu batzuk

AHOLKUAK ETA KONTSULTAK

- Enpresaren **Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua.**
- **Lan Osasunaren Zerbitzua (NOPLOI):**
Tel.: 848 428 948 Helb. elek.: ispln.spri@navarra.es
- **Laneko Osasuna Zaintzeko Atala (NOPLOI):**
Tel.: 848 423 747 Helb. elek.: contactosestrechoslaborales@navarra.es
- **Koronabirusaren aurreko prebentzio neurriak (NOPLOI):**
Helb. elek.: trabajosegurocoronavirus@navarra.es

I. ERANSKINA

COVID-19AREKIN BATERAGARRIAK DIREN SINTOMEN ZERRENDA

(bat edo batzuk ager daitezke)

- 37º-tik gorako sukarra.
- Eztula.
- Arnasteko arazoak edo airea falta duelako sentrazioa.
- Usaimenaren edo dastamenaren galera edo murrizketa.
- Hotzikarak.
- Abdomeneko mina, beherakoa edo oka.
- Unadura orokorra.
- Muskuluetako, eztarriko edo buruko mina, ohikoak ez direnak edo kausa ezagunik ez dutenak.

Sintoma horiek egoera larriagoak eragin ditzakete patologia hauek dituzten pertsonengan: eritasun kardiobaskularrak (hipertentsioa barne), biriketako eritasun kronikoa, diabetesa, giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa, immunodepresioa, minbizia tratamendu aktiboko fasean, gibelego eritasun kroniko larria, obesitate morbidoa (IMC>40), haurdunaldia eta 60 urtetik goitikoa izatea.

¿Cuáles son sus síntomas?



Fiebre de más de 37 grados

Tos

Dificultad respiratoria

Pérdida de olfato o del gusto

Diarrea, dolor de garganta,
dolores musculares... no habituales
o sin causa conocida.



EZ IRTEN BIZILEKUTIK


ENPRESARI JAKINARAZI
(ERREFERENTZIAKO PERTSONA)





II. ERANSKINA

Dirección General de Políticas Migratorias
Migrazio Politiketako Zuzendaria
Tel. 848 420 107
dgpolicasmigratorias@navarra.es

 **Gobierno de Navarra**
Nafarroako Gobernu
Departamento de Políticas
Migratorias y Justicia
Migrazio Politiketako eta
Justiziako Departamentua

KULTURA ARTEKO BITARTEKARITZA ETA ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAREN ZERBITZUA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN GATAZKAK PREBENITU ETA KONPONTZEKOA

Nafarroako Gobernuaren Zerbitzua, Foru Komunitate osoari zuzendua, Gurutze Gorriak eta Secretariado Gitano fundazioak kudeatua. Iruñean eta Tuteran bi egoitza ditu.

Iruñean:

- **Gurutze Gorria:** 948203642-Arabiako, Bulgariako, Saharaz hegoaldeko eta Latinoamerikako (portugesez) bitartekarien laguntza jasotzeko.
mediacionnavarra@cuzroja.org
 - Arabiakoak (arabiera eta frantsesa): 7:30etik 15:30era bitarteko ordutegia duen pertsona bat (udako ordutegia), astelehenetik ostiralera eta asteburuetan 9:00etatik 17:00etara bitartekoa duen beste bat.
 - Bulgariakoak: 7:30 - 15:30 (udako ordutegia)
 - Saharaz hegoaldekoak (ingeleza): Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 17:00
 - Latinoamerikakoak (portugesa): Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 13:00
- **Secretariado Gitano fundazioa:** 948382680/695202551- Errumaniako bitartekariaren laguntza jasotzeko eta ijitoen etniako bertako biztanleei laguntzeko.
mediacionnavarra@gitanos.org
 - Errumaniakoak: Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 14:00 (abuztua). Irailetik aurrera: 8:00 - 15:00
 - Ijitoen etniako bertako biztanleak: Astelehenetik ostiralera: 8:00 - 15:00

Tuteran:

- **Gurutze Gorria:** 948827450 (luz.: 56305)- Arabiako eta Saharaz hegoaldeko bitartekarien laguntza jasotzeko.
 - Arabiakoak (arabiera eta ingeleza): astelehenetik ostiralera 9:00etatik 17:00etara bitarteko ordutegia duten bi pertsona
 - Saharaz hegoaldekoak (frantsesa eta ingeleza): Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 13:00mediacionnavarra@cuzroja.org

Aurrez aurreko informazio saioetarako laguntza eskatzeko, bidali mezu bat helbide honetara: migraciones.convivencia@navarra.es